

J.A. Agirre eta T. Monzonen mendeurrena

Pako SUDUPE

Gurean politikari gutxi duela ehun urte bi hilabeteren aldearekin sortu ziren Agirre eta Monzonen tamainakoak. Aita bergararra zuen bilbotar lehendakariak eta agirretarrak monzondarren auzo ziren. Biak etxe onekoak, batez ere Monzon, biak erdaldun haurtzaroan Euskal Herriko burgesia-nobleziaren tradizio erdaltzalearen urratsetan, euskaldunberri eta euskaltzale helduaroan, eta biak elkarrekin Bergarako jai eta prozesioetan bezala bizitza politiko jeltzalean harik eta 1953ko iraillean Monzonek erbesteko Eusko Jauriaritzako kontseilari gisa dimisioa eman arte. EAJko agintariengandik urrunduz-urrunduz joan zen, batez ere ETArek sorreraz geroztik, eta alderditik alde egin zuen eta bota egin zuten trantsizio garaian. Bizitzako azken hiru urteak Herri Batasuna alderdian borroka bizian eman zituen, bere burua jeltkidesunaren eta etazaletasunaren artean inolako kontraesanik gabe ikusten zuen abertzale handiak. Euskaldunok izan dugun lehendakari onartuena 1960an Parisen hiltzean, handik Monzonen Donibaneko etxera ekarri zuten gorpua, eta han Leizaolak esan zion bergararrari, zalantzak uxatze aldera edo, aurrerantzean erbesteko lehendakari bera zela.

Zazpi urte askatasun politikorik gabe basamortuan igaro ondotik bitan banatua zegoen EAJk alderdia batu zuen lehenbizik Bergaran, halabarrez, eta gogor ekin zion gero borroka politikoari 1931an II. Errepublika aldarrikatuz geroztik, Jose Antonio Agirre gaztea, orduan Getxoko alkate zena, buru zuela. Francesc Maciàk Kataluniako Errepublika bezala Jose Antonio Agirrek berehala aldarrikatu zuen Euskal

Errepublika Hego Euskal Herrian, Iberiako nazioekin federatua, baina Madrilgo errepublikano zentralistek laster zapuztu zituzten indarkeria erabiliz katalanen eta euskaldunen "gehiegizko" askatasun nahiak. Erregimen berriak artean Konstituziorik ez zuela ballatuta, Hego Euskal Herriko Udalbiltza gisako antolamendu politikoari ekin zioten —errepublikar laizista eta marxisten aurrez aurre jeltzale katolikoak eskuin espainiarzale monarkiko eta karlista tradizionalistekin batean—, eta hilabete gutxiren buruan idatzia eta zuzenketa egin zegoen Lizarrako Estatutua, eta idatzia ez ezik Hegoko lau lurralde historikoetako udalerriek gehiengoz onartua. Laster oinperatuko zuen euskal udalerrien borondatea errepublika zentralistak, orain monarkia konstituzionalak udalbiltza oinperatzen duen bezalatsu, diferentziak diferentzia. Lehenbiziko aldi honetan politikari nagusia J.A. Agirre jeltzaleen aldetik, Euskadin bezala Madrilen, eta artean Monzon Bergarako zinegotzi, jada hasia hitzaldi aberkoi arrakastatsuak egiten, eta euskaltzaletasuna eta jeltzaletasuna predikatzen.

Espainia federala ezinezkoa zen agintea eskuan zutenek ez zute-lako nahi, eta alferrik zen Madrilen agintzen zeudenekin kontatu gabe autonomi estatutuak prestatzen aritzea. Bi aukera zeuden: errepublika inarosten ahalegintzea, eskuin gogorrenak egin zuen bezala —gogora Nafarroako mendietan erreketeez egindako prestaketa militarra— edo diskurtsoa eta praktika aldatu eta Madrilen agintean zeudenek onar zezaketen autonomi estatutua aurrera ateratzen saiatzea, askatasunaren bidean gorako eskailera-mailatzat joaz estatutuaren bidea. Bide honetatik jo zuten Agirre eta gainerako jeltzaleek. Alcalá Zamora lehendakari errepublikanoari sostengua eman eta bigarren autonomi estatutua prestatu zuten Euskadin Madrilen nagusi ziren indarrekin batean 1932-33ko urte-bitartean. 1933ko azaroan alde handiz onartu zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Nafarroan ez —iruzurrarenaz gutxi-asko irakurri duzue—, eta orduan berriz ere aldatu egin behar izan zen estatutua Madrilen onartuko bazen; izan ere, errepublikak ezarritako baldintzen arabera, lehenbizi Hegoko udalek onetsi behar zuten, gero biztanleriaren gehiengoak plebisizituan eta azkenik, baina nagusiki, Madrilgo Gortean. Alderdiari dagokionez, 1933ko urte hau izan zen urterik onena EAJrentzat: inoizko denborako afiliatu eta Madrilerako diputatu gehien lortu zituen, besteak beste, J.A. Agirre Bizkaitik eta T. Monzon Gipuzkoatik, Joseba Leizaolaren hurrengo.

Estatutua lantzerakoan esku hartu zuten indar errepublikar eta sozialistek ez zuten aski borondaterik agertu Madrilen berehalakoan onartua izan zedin –gubernua aldatu zen, agintea CEDA eskuinak eta Lerrouxen alderdiak eskuratu zuen–; orduan ez zuen EAJk estatu-politikan parte hartzen, ez zegoen borroka armaturik Euskal Herrian –mira egitekoa ez al da espainiarren borondate demokratikoak hori baino eskuzabaltasun gehiago ez erakustea, indarkeriaren aitzakiarik ez zegoenean–, 1934ko urriko iraultza, EAJ nahasi nahi izan zuten alderdi marxisten iraultza-ahalegin horretan; kontua da mendebaleko hiru lurraldeetan onartutako estatutuak ez zuela aurrera egin harik eta Molak eta Francok beren laguntzaileekin gerra hasi arte.

Monzonek Madrilgo Parlamentuan: *Zer gertatu da Kubarekin? Bai, jaunok: Herri batek Espainiari autonomia eskatzen dionean, horrek iduriz Gubernuak orain guri igorri nahi diguna igortzen dio: zapalkuntza. Orduan herri baten askatasun ahotsa azkartzen da... iritsiko da unea non gure Herriari eskeiniko diozuen autonomia, jada, Herria aseko ez duena, Euskaldun guztiok autonomia baino gehiago eskatuko dugunean, orduan zatitxo bat eskeini nahi izango diguzue, baina berandu izan daiteke, Kuban gertatu zen bezala;*

Agirrek: *euskal nazionalista naiz, ondorioz, euskal nazionalitatea aldarrikatzen dut. Euskal nazionalitatea, Euzkadi, bere geroaren jabe. Zer egiteko? Monzon jaunak bere mintzaldiaren bukaeran zioen bezala "hori zuen esku dago gurean baino gehiago" ...Zuek eragozten duzue gure nahikarien konponbidea. Hor konpon zuek zuen erantzukizunarekin.¹ Irujok ere antzekoak.*

Handik berrogeita bost urtera, halabeharrez uztailaren 18an, Gernikako estatutua onartu zen, besteak beste, bultzatzaile historikoak Irujo eta Leizaola zirela. Gernikan euskal parlamentariak onartutakoari Moncloako jauregian Garaikoetxeak Suarezekin izandako negoziatioetan hainbat puntu giltzarritan axola handiko aldaketak egin zitzaizkion, Espainiako presidentek hertsaturik, eta uztailaren 16an UCD eta EAJ ados jarri eta 18an onartu zen. Akordioaren berri

(1) Artikulua idazteko Monzon eta Agirreraren idatzietan ez ezik beste liburu honetan oinarritu naiz: Santiago de Pablo, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz-en *El péndulo patriótico (II)*, Crítica, Barcelona, 2001. EA-Jren historiari ezagutzen dudana liburu onena, nahiz darion ideologia partekatzen ez dudana.

lehenbizi Espainiako Armadako Estatu Nagusiari eman omen zion Suarezek eta 21ean Kongresuko Batzorde Konstituzionalak onetsi zuen legea.

1979ko ekainean, Gernikakoa edo Moncloakoa onetsi baino hilabete lehenago, berriki Imanol Murua kazetariak oroitu bezala, estatutu proiektu alternatiboa lantzen hasi ziren hausturaren aldeko indar abertzaleak, besteak beste, buru historikotzat Monzon zutela: euskal nazioaren aitortzan, Hego Euskadiren lurralde osotasunean eta Ipar Euskadirekin harremanak modu librean erabakitzeke eskubidean, euskararen ofizialtasunean eta sustapenean oinarriturik, estatutua oinarrietatik modu herrikoian lantzen. Baina berrogeita bost urteko tarte horretan, 1934tik 1979ra, gorabehera politiko franko bizi izan zituzten Agirrek 1960 arte, eta Monzonek 1979 arte.

1936ko gerran, jeltzaleen hasierako zalantzak gorabehera —ez baitzeuden ez matxinoekin eta ez errepublikarrekin guztiz bat baizik politika aldetik behintzat autonomi-estatutuari buruz bietatik alderik egokiena zein zitekeen beha—, *Euzko Gudarostea* eratu zen, berrogei bat mila lagun nolabait armatzea eta armada bihurtzea lortuz. Nabarmentzekoa halaber Monzonek dimisioa eman izana Gipuzkoako Gerra Batzordetik, ezkerreko indarren “paseo” eta erailketengatik. Gerra galduagatik —batez ere Espainiako errepublikanoek galdu baitzuten— euskal armada sortu izanak euskal burujabetzarako aukerak zabaldu bezala egin zituen, subjektiboki gehiago objektiboki baino, eta ia etenik gabe Espainiakotik Europako eta mundu-gerrara igarotzeak sortutako astinaldi politiko orokorrak areagotu egin zuen orotariko kolokatasuna eta halaber hautabide politikoen ugaritasuna. Jeltzaleek indar errepublikarretatik bereiz Santoñako ituna hitzartu zuten italiarrekin, eta Espainian gerrak iraun zueino frantses eta ingelesekin bitartekaritza-ahaleginetan jardun ziren. Luis Aranak Britainiako Gobernuari Euskadirentzat independentzia eskatu zion britainiarren babespean. Faxismoa Europa guztira zabal ez zedin Katalunia eta Euskadi bi estatu tapoi izan zitezkeen Pirinioen gerizpean, frantsesen arrimuan katalanak eta ingelesen babesean euskaldunak. Portuges oposizioa Agirrerekin mintzatu eta Iberiako Konfederazioa sortzea proposatu zioten, Galeuzkari Espainia eta Portugal gehiturik, nor bere lurraldean burujabe eta denek hala nahita politikoki elkar-tuak. Zenbat sufrikario eta zenbat amets politiko eder!

Ildo horretan jeltzaleek, Agirre buru zutela, Eusko Jaurlaritza na-

zionalizatzen salatu ziren, nagusiki sozialistei egin zieten presioa zinez Euskadiko alderdi sozialista sor zezaten, benetan erabakiak hartzean bere buruaren jabe izango zen euskal alderdi sozialista. Ez zuen arrakastarik izan, baina 1939-40an garbi zegoen jeltzaleen artean errepublikak eraikitako legalitatea hautsia zela eta ez ziotela ezer zor, aukera guztiak zabalik zeuden, eta monarkikoen alegiazko itzulera ere aztertu beharra zegoen. Hau guztia Indalezio Prietok Franco botatzeko monarkikoeekin bat egiteko planaren lehen zirriborroaren aurretik, Espainian erregimenari buruzko plebiszitua egiteko proposamena aurkeztu baino pare bat urte lehenago.

Irujo eragile nagusi zela erbesteko Eusko Jaurilaritza Euskadiko Kontseilu Nazionala bihurtu zen Londresen, 1940an Agirre Berlinen eta desagertua zela. Euskal burujabetza lortzeko bidean, eskailera-maila bat gorago igotzea esan nahi zuen horrek; Irujoren aburuz, gainera, delako eskailera horrek behin gora igoz gero beherako mailarik ez zuen edo ezin izan zuen. Esan beharrik ez dago, urteari urtea, eskailerak mailak gorako eta beherako izan ohi dituela dioen euskal esaera zaharra aterako zela gailen. Agirre New Yorka heldu, AEBeko Estatu Departamentutik Latinoamerikan espioitza egitearen truke finantza-bideak lortu, eta Ameriketako diasporan sos dezente bildu ondotik, beste ahalegin bat egin zuen euskal lehendakariak oraingoan Mexikon aterpeturik zeuden Julio Jauregi eta artean kontseilari zen Monzonen bidez. Mexikon Prietoren sozialistek eta Martínez Barrioren inguruko errepublikarrek JEL Askapenerako Espainiar Batzordea eratu zuten 1943ko azaroan, eta Prietok Batzordearen oinarri gisa Errepublikak 1931n onartutako Konstituzioa ezarri zuen. Orduan Monzonek: *Dése al pueblo vasco libertad plena para que, en uso de su soberanía, resuelva sobre sus destinos y sólo así podrá decidir su integración en España con otros pueblos, libre y afectuosamente y se habrá resuelto en su fondo y para siempre el problema nacional vasco.* Espresuki adierazi gabe, autodeterminazioaren aldarrikapena. 1943-44ko aldi hartan Agirre eta Monzon bat zetozen. Laster hasiko ziren urruntzen.

1947ko urtarrilean egin zen gailur nazionalistan –Beyris-eko EBB, Solaun barneko ordezkari gisa, Gobernuko kontseilariak eta Joseba Rezola– Monzonek gogor aldeztu zuen Borboiko Joan, Bartzelonako kondearen aldeko hautua, errepublikazaletasun nazionalista gogor jorratuz. Errepublikak ez zuela ezer ordezkatzeko, Errepubli-

karen laguntzarekin Franco bota nahi izatea Eiffel dorrea mailu batekin bota nahi izatea bezalatsu zela, eta bazela garaia honako politika egiteko: *hacer una política netamente vasca, netamente nuestra y esperar a que llegue a nuestras manos el arma necesaria y eficaz*. Lasartek gaitzetsi egin zuen kritika hau, funtsik ez zuela arrazoituz, eta Leizaolak gututz babestu zuen Lasarte, gutxi gorabehera adieraziz Monzonen hitzak azaluts zirela, errealtate praktikorik gabeak. 1945etik 1949ra bitartean apustu gogorra egin zuten EAJk eta Eusko Jauriaritzak irtenbide errepublikanoaren alde, inoiz baztertu gabe Prietoren plana, hots, Borboiko Joanen aldeko monarkikoen laguntzarekin Franco uzkaitezarena, britainiar gobernuak begi onez zekusana. Baina 1949an jeltzaleak etsi samarturik zeudenean Prietoren planak zuela aukera gehien, eta horretarako oinarriak prestatuak zituztenean, porrot egin zuen planak Bartzelonako kondeak Francoren nahiak onartu zituelako, eta 50eko hamarkadan geroz babes handiagoa jaso zuelako AEBetik eta Vatikanotik, besteak beste. Politika espainolean pulunpatu ez ezik, nazioartekoan –anglosaxoiekin– eta barneko erresistentzia hauspotzen ere lan handia egin zuen EAJk 40ko hamarkadako azken urteetan 50eko hamarkadan behera eta behera etortzeko.

* * *

Zergatik eman zuen dimisioa Monzonek 1953ko irailean? Bi arrazoi agertu zituen berak jendaurrean: euskara behar adinako indarrez bultzatu ez izana erbesteko Jauriaritzak, eta Euskal Herriaren etorkizun politikoa errepublikak sortutako legalitateari gehiegi estekatu izana. Agirre, Leizaola, Irujo, Landaburu-eta Parisen bizi ziren; Monzonek esatera, NBE zirudien etxean; bergararra, aldiz, Donibane Lohizunen, merkataria, arrantzale eta laborariekin eta udan turistekin, donibandartzen ari. Batez ere begiak inguruko laborariei beha: Sara, Ainhoa, Ezpeleta eta Lohizuneko laborarietara. Baratzatxo bat erosi zuen Lohizuneko lurretan, eta lursagarrak erein ere bai bertan, euskal lurraren emankortasuna ospatuz. Lurraren ospakizunetik mitin politikoa iraganez, 1950ean Azkainen ospatu zuten Aberri Eguna Bazko Egunarekin jeltzaleek, eta hitzaldi politikoa gaztelaniaz egin zuten Azkaingo plazan, Monzonek izan ezik. Azkainen eta Cervantesen hizkuntzan! Zer erran behar zuten inguruko euskaldunek?

Espainolak zirela, noskil Hizkuntzaz ez ezik izaeraz ere iruditzen zitzaion Monzoni, bere artikulua lekuko, hiritartzen ari zirela euskal agintariak, muinetik erdalduntzen, eta euskal zibilizaziotik urruntzen. Egia esateko, dimisioa aurkeztu zuen garai horretantsu idatzi zituen artikulua irakurrita, bere mezua zaharkitua ikusten dut, baserri-zibilizazioari lotuegia, egungo gizarte-gai eta beharrianetatik hagituz urrun, baina dimisioarena ari gara azaldu nahian eta urruntasun fisiko-espirituala lodiz nabarmendu beharra dago: Agirre-eta Parisen hango eta hemengo politikariek in baltsan, eta Monzon Donibanen euskal laborarien gizontasuna miretsirik, eta euskal kulturgile herrikoiekin auzolanean eta aberkideen artean. Gainera ez ahaztu euskararen kezka aspaldikoa zuela Monzonek: Tolosako Urkizun ikasiz gero istantean hasi zen hitzaldietan euskararen garrantziaren handia aldarrikatzen.

Monarkiaren alderako isuria, Borboi-Battembergeko Joan, Barzelonako kondearen aldera zer jauspen zuen ikusi genuen argiro trantsizio garaian: zenbat goretsi zuen haren seme Joan Karlos Borboikoa! Gernikara etortzekoa zela, Monzon hil baino hilabete lehenago, gisa honetan idatzi zuen: *Ez. Errespetu guztiz mintzo natzaila, baina garbiki. Juan Carlos I jauna izan daiteke Espainian errege. Ez naiz horretan sartzen. Baina horrek ez dio eskubiderik ttipiena ere ematen, Euskal Herriko errege agertzeko. Zergatik? Erreza da erantzuten: Espainolak ez garelako. Guztiz arrazoi taktikoa zuela esango nuke: Prietoren planak arrakasta izateko aukera gehiago ditu; bada, ahaz dezagun errepublikaren legalitatea eta hankaz gora dezagun Francoren diktadura nola edo hala, era batera edo bestera!*

1956an Pariseko Euskal Mundu Batzarrean 1947an estreinakoz agertutako jarrera atxiki eta harrezkero EAJren kritikari porrokatua bilakatu zen jeltkidesunari uko egin gabe abertzale historikoak eta gazteak hurbildu beharrez, barruak eskatzen zion zubigintzan. Mugarririk batzuk: ETAk 1964ko Urteberri Egunean agiri bat eman zuen argitara askapen nazionala eta soziala hertsiki lotuz. Agiri horrek, iraultza-zergaren sorrerak, Federiko Krutwigen *Vasconia* (1963) eta *La insurrección en Euzkadi* (1964) koadernoaren argitalpenak; hauek guztiek leizea sortu zuten EAJ eta ETAREN artean. Txillardegiren arabera, 1963-64 urteetan sendotu egin zen mugaz haraindiko eta honaindiko aberkideen arteko adiskidantza eta elkarlana. Bai Iparraldeko Labeguerie, Haran, Abeberri, Davant, Nobliatarrak; eta

bai Hegoaldetik joandako deserrituekin: Robles anai-arrebak, Monzon anaiak etab. Hartan 36ko gerra aurrean parlamentari izandako Julio Jauregik afaltzeko gonbita egin zien: Monzon bi anaiak eta bera EAJtik eta Benito del Valle, Julen Madariaga eta Txillardegi ETAtik. Miarritzeko hondartza gaineko jatetxe batean egon zitzaizkion bostak zain, baina Jauregi ez zen agertu, azken mementoan EAJko agintariek ez baitzioten afarira joaten utzi. *Afari batera ere ez: no comment!*, idatzi du Txillardegik.

1968ko ekainean José Pardines guardia zibilaren hilketa eta Txabi Etxebarrietarena eta Iñaki Sarasketaren atxiloketa eta heriotzera kondenatzea, abuztuan Melitón Manzanasen hilketa eta Gipuzkoarako hiru hilabeteko salbuespen-egoera, berezigabeko atxiloketak eta bortxazko etxe-miaketak. Giro horretan Monzonek gutuna iraillean EBBri erantzunik ezean azkena izango zela iragarritz, EBBkoek afiliatuengana erakusten zuten begirunerik eza salatuz, jeltkidasunean zuen sinesmena berretsiz, ETaren aldera zuen miresmena aitortuz eta jeltkide eta etakideen arteko adiskidetze beharra aditzera emanez: *para mí el amor al Partido no se mide por la enemistad que sea uno capaz de profesar a ETA (...) la acción concertada en Euzkadi entre abertzales de diferentes ideologías acabará por imponerse (...) el enemigo no se halla hoy al costado sino enfrente. Gaur da eguna zain jarraitzen duguna!*

1968tik 1971ra ETAK bereganatu zuen alde-aldera ekimen politiko guztia eta hainbat jeltkidek gogor kritikatu zuten alderdia; besteak beste, nola ez, Monzonek! Gutuna Irujori 1971ko uztaillean: *¿Dónde está aquél glorioso PNV que tú y yo hemos conocido? ¿Por qué ha perdido toda iniciativa? ¿Por qué no causa ya el impacto de antes sobre nuestro pueblo? ¿Por qué se le ha ido y se le sigue marchando a borbotones la juventud? ¿Por qué se le ha ido de las manos el renacimiento euskeldun y la alta dirección de la cultura vasca? ¿Dónde está aquella mística, aquél ímpetu, aquel afán de renovación, aquella fuerza que lo invadía todo? ¿De dónde ha nacido ETA con todas sus actuales desviaciones, sino es de las entrañas mismas de un Partido anquilosado? (...) somos muchos los que creemos que el Partido se está suicidando.*

1977ko ekainaren 15eko hauteskunde orokorrak baino lehen EAJK batetik Fronte Autonomikoa sustatu zuen PSOErekin batean (erbesteko euskal batasunaren bertsio berria) eta aldi berean ETaren

inguruko indar politikoetara hurbildu zen, Monzonen ekimenez burututako Xibertako solasaldietan esku hartuz. Fronte Autonomikoa EAJK eta PSOEk 1977ko apirillean hasitako solasaldien ondorioz eratu zen. Bi alderdiek Senaturako hautagaitza bateratua aurkeztea hitzartu zuten eta euskal parlamentariak izatea estatutua idatziko zutenak. 1931ko abenduan Konstituzio errepublikarrarekin egin zuten bezalatsu, konstituzio-kutsuko 1977ko hauteskunderen aurretik jeltxideak autonomia lortzearren konstituzioa onartzeko bidean abiatu ziren, nahiz Konstituzioarentzat 1978ko abenduan abstentzioa proposatu. Azkenean ondoko alderdiak biltzea lortu zuten delako Fronte Autonomikora: ESEI, ANV, PC eta DCV. Konpromiso hauen berri eman baino lehen, ondoko indar politikoak erakarri nahi izan zituzten espainiar erako demokrazia bidera: EHAS, EIA, EKA, ESB, Eusko Sozialistak, LAIA, ETA-m, bi ETA-pm-ak -ofiziala eta Bereziak-, Alkateen Taldea, Mirentxu Purroy eta Monzon, artean EAJKo kidea. Monzonek abertzaleen arteko aurretiazko akordioa lortu nahi zuen: Estatutua eta Behin-behineko Gobernuaren sortzea, gero Estatuarekin berdinen arteko eztabaidari ekiteko Euskadiren etorkizuna zehaztea xede. Era horretan jarduera politikoak jardun armatua ordezkatuko zuen.

Alde bakoitza jarrera itxiarekin joan bide zen, eta azkenean desadostasun-iturri nagusia hauteskundeetara aurkezteko baldintza *sine qua non* gisa amnistia exijitzea bai ala ez izan zen. Puntu horretan ez zen malgutasunik egon, eta beste xede guztiek erreka jo zuten.

Azaldu dugu gorago 1979ko Gernika Estatuarekikoan non eta nola ibili zen Monzon.

Biak izan ditugu handi, Agirre bezala Monzon, eta biek ordezkatzen duten abertzaleriak zatitua jarraitzen dueino batu beharra oroitaraziko diguten bi gizon historiko gailen izanen ditugu, Agirre bezala Monzon, *Gernikatik New Yorka Berлиндik igarotako* Agirre lehendakari miretsia bezala *Arrano Beltzaren* eta *Euskarari Bairen* Monzon zubigile porrokatua ez gutxiago miretsia.

Doniberg Lohizune Duintzenez, 2014ko azaroaren 16an, atarazaleko 6. orrialdean.

Bergara Geroa Gurea, 2004ko azaroaren 16an, atarazaleko 7. orrialdean.